



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1997ko abuztuaren 6a

56 ZK.

### A U R K I B I D E A

F S A I L A:

#### Galderak:

- Nafarroako Gobernuaren sare barruko liburutegiei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- DBHko lehen zikloan eskolak ematen dituzten OHoko Irakasle Diplomatuei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Marcillako Gaztelua zaharberritzeko proiektuaren norainokoari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Nafarroako Ekonomi Kontu Urterokoak egiteari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Otsagabiako eta Erronkariko natura interpretatzeko zentron kudeaketari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Funtzionarioen lansariei buruzko otsailaren 10eko 22/1997 Foru Dekretuaren inpugnazioari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Nafarroako Liburutegi Nagusiari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Nafarroako aldi baterako lanerako enpresei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Nafarroako ureztalurrei izendatzen zaizkien errendimenduen jaitsiera garrantzitsua ezartzen duen Ministro Agindu berriari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Iparlat enpresak enplegua erregulatzeko aurkezturiko espedienteari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Gobernuak Foru-Bilduma eskubide juridiko, sozial eta abarrei dagokienean aldatzeko asmoa ote duen jakiteko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Baztan, Bertizarana, Bortziri, Malerreka eta Zugarramurdin hondakin solidoak tratatzeko erari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Hartz arrea Nafarroatik hurbil dagoen Frantziako Pirinioan berriz sartzeko proiektuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Tuterako El Molinarko urtegiaren zentral hidroelektriko bat ezartzeko proiektuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Askaingo Udalak Larrun mendiarentzat proposatu duen garapen ekonomikoaren proiektua, eta hark gure Komunitatean izan dezakeen eraginari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).

- Pamplona TV eta Canal-4ri buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Txerri-izurria heda ez dadin Nafarroako Gobernuak hartutako kontrol neurriei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Abuztuaren 2ko Uraren gaineko 29/1985 Legea erreformatzeko Legearen aurreproiektuari eta honek Itoitz-Nafarroako Ubideko obrekin duen zerikusiarri buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- 1996-1997 ikasturtean derrigorrezko eta derrigorrezkoaren ondorengo irakaskuntzetan guztira eskolaraturiko ikasleen kopuruari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Nafarroako Gobernuak argitalpenei ematen dien dirulaguntzei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).

**F Sailsa:**  
**GALDERAK**

## Nafarroako Gobernuaren sare barruko liburutegiei buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Nafarroako Gobernuaren sare barruko liburutegiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko apirilaren 21eko 28. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 15a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Nafarroako Gobernuaren sare barruko liburutegiei buruz egindako galderaren inguruan, ondokoa adierazten du:

1. Eranskinean jarri dira Nafarroako liburutegien sare publikoa osatzen duten liburutegi guztien zerrenda.

2. Liburuak erosteko ondoko prozedurari jarraitzen zaio:

a. Erosketak Nafarroako Herri Liburutegien Sarearen Zentro Koordinatzailean kudeatzen dira.

b. Erosketak hamabostean behin egiten dira eta multzoka bidaltzen dira kasuan kasuko liburutegira.

c. Liburutegi bakoitzari ehun mila pezeta ematen zaizkio liburuzainari egoki iruditzen zaizkion liburuak erosteko.

d. Udal bakoitzak diru jakin bat jarri behar du liburutegirako liburuak erosteko. Hitzarmen batez ezarri zen kopuru hori Nafarroako Gobernuak liburutegi bakoitzari ematen dion diruaren % 50 izan zela.

3. Tituluak aukeratzeko erabiltzen diren irizpideak, gehien bat, argitalpenen eskaintzan, erabil-

tzaileen eskaeretan eta irakurketa erabiltzaileen garapen kulturalerako abiapuntu bezala hartzean oinarritzen dira.

Sarearen zentro koordinatzaileak liburutegiko langileek osatutako talde tekniko bat badu liburuaren aukera egiteko.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 8an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

### Herri liburutegien sarea

Zenbakia	Liburutegiak
1	Ablitas
2	Oibar
3	Altsasu
4	Allo
5	Andosilla
6	Antsoain
7	Añorbe
8	Agoitz
9	Arguedas
10	Arronitz
11	Artaxona
12	Auritz
13	Aurizberri
14	Azagra
15	Barañain
16	Baztan
17	Bera
18	Beriain
19	Berriozar
20	Buñuel
21	Burlata
22	Burlata (haurrentzakoa)
23	Cabanillas
24	Cadreita
25	Caparrosa

26	Zarrakaztelu	56	Miranda de Arga
27	Cascante	57	Monteagudo
28	Caseda	58	Murchante
29	Castejón	59	Noain
30	Cintruénigo	60	Obanos
31	Corella	61	Olazti
32	Cortes	62	Erriberri
33	Doneztebe	63	Iruña-Etxabakoitz
34	Lizarra	64	Iruña-Arrosadia
35	Etxarri-Aranatz	65	Iruña-Orvina
36	Falces	66	Iruña-Donibane
37	Fitero	67	Iruña-San Pedro
38	Funes	68	Azkoien
39	Fustiñana	69	Gares
40	Uharte	70	Ribaforada
41	Irurtzun	71	Erronkari
42	Larraga	72	San Adrián
43	Leitza	73	Zangoza
44	Lekunberri	74	Sartaguda
45	Lerin	75	Sesma
46	Lesaka	76	Tafalla
47	Lodosa	77	Tutera
48	Urantzia	78	Valtierra
49	Irunberri	79	Viana
50	Mañeru	80	Villafranca
51	Marcilla	81	Atarrabia
52	Melida	82	Ziordia
53	Mendavia	83	Zizur
54	Mendigorría	84	Zizur (haurrentzakoa)
55	Milagro		

## DBHko lehen zikloan eskolak ematen dituzten OHOk Irakasle Diplomatuei buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak DBHko lehen zikloan eskolak ematen dituzten OHOk Irakasle Diplomatuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko apirilaren 21eko 28. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 15a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak, Inmaculada Matías Angulo Foru Parlamentari andreak

DBHko lehen zikloan eskolak ematen dituzten OHOk Irakasle Diplomatuei buruz egindako galderaren inguruan, ondokoa adierazten du:

1. LOPEGCE legearen 18. artikulua arabea, "edozein irakasle izan daiteke zuzendarigaia, karrerako funtzionarioa bada, baldin eta ondoko beharkizunak betetzen baditu:

a) Irakaskuntzako funtzio publikoaren kidegoko dagoen lanpostuan, gutxienez, bost urte egon izana, eta irakasle aritu izana epe berean, maila eta araubide bereko irakaskuntzak ematen diren ikastetxe batean."

Irakaskuntzako langileen batzordeak Hezkuntza Departamentuko Idazkaritza Teknikoari eskatu zion txosten juridiko bat egin zezan aztertzeko gutxienez bost urtez OHOk goiko zikloko eskolak

eman dituzten maisuek aipatu artikuluan ezarritako beharkizuna betetzen duten ala ez. Aukera hori bideragarria denik ezin esan badaiteke ere, Departamentuaren behin betiko irizpidea baldintzatuta gelditzen da egiten ari den txosten juridikoa bukatu, aurkeztu eta irakasleen ordezkari sindikalek eztabaidatzen den arte.

2. 1997/98 ikasturtean Hezkuntza eta Kultura Departamentuak Batxilergo berria, Berariazko Lanbide Heziketa berria eta Berme Sozialeko moduluak ezartzeko beharrezkoa den langileen banaketa berria egiteko asmoa du.

3. Maisu-Maistren Kidegoko funtzionarioak, DBHkoak izan ala ez, A mailan sartzeko sistema 575/1991 Errege Dekretuaren II. kapituluaren arautzen da, eta beti oposizio-lehiaketa itxiaren sistema-

ren bidez eginen da. Oposizio-lehiaketa hori, sindikatuekin adostu den bezala, ez da hurrengo bi urteetan eginen. Eskaintza publikoa egiten denean, lanpostuen ehuneko 50 gordeko zaizkie aipatutakoei.

Beste alde batetik, apirilaren 14ko 96/97 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera, maisuen kidegoko funtzionario lizentziatuek sei urteko gehieneko epea dute A mailako lanpostuetara pasatzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokotan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko apirilaren 9an

Hezkuntza eta Kultura kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

## Marcillako Gaztelua zaharberritzeko proiektuaren norainokoari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentari jaunak Marcillako Gaztelua zaharberritzeko proiektuaren norainokoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko apirilaren 21eko 28. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 17a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak, Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentari jaunak Marcillako Gaztelua zaharberritzeko proiektuaren

norainokoari buruz egindako galderaren inguruan, ondokoa adierazten du:

1. Lanak bidezko eskaerari jarraituz burutu dira. Balizko arriskua zeukatzen arkitektura-elementuak kendu dira.

2. Bai. Dena den, lan horiek burutzea baldintza batzuen menpe dago: Nafarroako ondare historiko-artistikoa mantendu, zaindu eta zaharberritzeko behar orokorrak, eskura dauden baliabideak eta presako, beharreko eta interes historiko-artistikoko irizpide objetibo eta teknikoak.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokotan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 9an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Marcotegui Ros

## Nafarroako Ekonomi Kontu Urterokoak egiteari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Gregorio Martínez Ezcaray Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Ekonomi Kontu Urterokoak egiteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 19ko 35. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 17a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak, Gregorio Martínez Ezcaray Foru Parlamentari jaunak "Nafarroako Ekonomi Kontu Urterokoak" egiteko kanpoko talde bat kontratatzeari buruz egindako galderaren inguruan, ondokoa adierazten du:

Galderak aipatzen duen eragiketa estatistikoa 1996an hasi zen, aurreko Gobernuak, alegia, PSN-PSOE, NDE eta EAK osatutakoak, ikusi zuten Nafarroako ekonomiaren ezagutzan sakontzeko beharra zegoela, informazio eskasia handia zegoelako.

Horretarako, abian jarri ziren "Nafarroako Kontu Ekonomikoak eta 1995 Input-Output Taulak" burutzeko lanak, berez erabilgarri behar lukeen tresna bat izan zitekeelako, baina baita ekonomia arloko sistema estatistiko osoa antolatzeko tresna izan zitekeelako ere.

Gogoratu behar da azken Taulak 1980koak zirela eta Nafarroako Kontu Ekonomikoak 1981etik 1986ra bitartean burutu zirela, bi kasuetan kanpoko bitartekoen laguntzarekin.

Burutu beharreko lanen zailtasuna ikusita, kanpoko ekipo bat lehiaketa irekiaren bidez kontratatzeari ekin genion, lizitazioarako 50.000.000 pezetako oinarritzko prezioa jarrita. Lanak 48.952.000 pezetako prezioan esleitu ziren, azkenean.

Lan hauek oso aurreratuta daude, eta behin eskura dauden informazio iturriak eskuratu ondoren, atera den ondorioa da badagoela Kontu Ekonomikoak oso kostu gutxiarekin egiteko modua, bide batez Industriaren Sektorako Kontuak eta Administrazio Publikoetakoak burutzeko bidea ere ematen duena.

Horretarako, kanpora atera eta unitate ekonomikoei galdetegiak egin beharrean, zerga erregist-

troak erabiltzeko aukera egin da (beti ere modu erantsian, datuen isilpekotasuna gordez), era horretan unitate berriemaileei behar ez diren kostu eta kalteak saihestuz.

Kontu Ekonomikoak burutzeko zerga erregistroak erabiltzeak baditu aurrekariak gure inguruan. INEk (Estatistika Institutu Nazionala) saio batzuk egin zituen 80. hamarkadan, baina alde batera utzi behar izan ziren ikusita zein sozietate gutxi ordaintzen zizuten zergak garai haietan. Hala ere, Ikerlan Fiskalen Institutua metodo horren bideragarritasuna erakusteko lan-saio batzuk egiten ari da.

Gure Estatistika Zerbitzuak, oraingo Gobernuak sortutakoak, atalaren maila zuen garaiko giza baliabide berberak ditu:

Zerbitzuberu bat. A maila.

2 atalburu, bat A mailakoa eta bestea B mailakoa Estatistiko bat. B maila.

2. bulegoburu, C mailakoak.

8 bulegari. C maila.

Administrazio laguntzaile bat. D maila.

Bitarteko hauen eskasiari aurre egiteko, bai kopuruari bai kualifikazioari dagokionez, Zerbitzuak 1996tik kopuru batzuk dauzka 6. kapituluan (inbertsioak) jarriak. Kopuru horiek bidea eman dute Zerbitzuak dituen giza baliabide teknikoek egin lezaketenez gaindiko lan batzuk egiteko.

Inbertsio hauekin, Estatistika Zerbitzuak prestakuntza bat eta bitarteko batzuk, oro har aplikazio informatikoetan, eskuratzeko asmoa du, hain zuzen ere etorkizunean eragiketa horiek bere bitartekoak erabiliz errepikatzeke modua izateko.

Urteroko Kontuak eta 1995 Input-Output Taulak burutzeko egin den ahalegina erabili egin behar da kontabilitate-eskema berean oinarritutako urteroko informazio ekonomikoko sistema baten oinarria izan dadin.

Kontuan hartuta bai prozesuen eta metodologiaren zailtasuna, bai langileen eskasia, errepikapen sistematikoa egiteko burutu behar den lanak, funtsean, Nafarroako jarduera ekonomikorekin Urteroko Kontuak lortzeko gauzatu behar den prozesuaren objektibazioa izan beharko du.

Objektibatzeak berarekin ekarriko du lanak burutzeko prozesua zehaztea, arauak modu argi eta gardenean ezarri, prozesu hori geroan errepikatu ahal izateko.

Objektibazio horrek barne hartu beharko du tresna informatikoen erabilera, izan ere, tresna horiek prozesuaren automatizazio are handiagorako bidea ematen dutelako. Zenbait kasutan, hori ezin izanen da egin, eta ebazteko metodo sasiautomatikoak edo eskuzkoak erabili beharko dira.

Beraz, egin beharreko lanek ondokoen ezagupenak dituzten langileen parte hartzea eskatzen dute: estatistika, fitxeroen tratamendua, estatu mailako kontabilitatea eta programazio informatikoa.

Eragiketa horiek guztiak ezin izanen dira burutu Estatistika Zerbitzuak une honetan dituen langi-

leekin. Dena den, behin produktua bukatuta dagoenean, inbertsio honek bidea emanen du urtero, bitarteko hoberenak dituzten Elkarte Autonomoek eskaintzen duten informazio ekonomikoarekin alderatu daitekeen informazioa emateko, baina askoz ere kostu gutxiagorekin.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 13an.

Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria: José María Aracama Yoldi

## Otsagabiako eta Erronkariko natura interpretatzeko zentrozen kudeaketari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Otsagabiako eta Erronkariko natura interpretatzeko zentrozen kudeaketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko apirilaren 28ko 29. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 17a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak, Martín Landa Marco Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeko kideak Otsagabiako eta Erronkariko natura interpretatzeko zentrozen kudeaketari buruz egindako galderaren inguruan, ondokoa adierazten du:

1.- Zerk eragotzi du interpretazio zentroetan lanean ari ziren kudeatzaileek horretan ez jarraitzea, haien lana behar bezalakoa omen zen arren?

Nafarroako natura interpretatzeko zentrozen kudeaketa eta jendearekiko arreta urtero esleitzen zaie bidezko lehiaketa irekia egin ondorioz ateratzen diren esleipen hartzaileei, Nafarroan kontratazioaren inguruan indarra duen arauteriak xedatzen duenari jarraituz.

Bistan da, beraz, natura interpretatzeko zentrozen kudeaketaren ardura ematen zaiela klausula tekniko eta administratiboen orriei, behar bezala izapidatu eta jendaurrean jarri direnak, hobekien egokitzen zaizkien eskaintzen egileei. Beraz, ezin da soilik eta besterik gabe kontuan hartu aurreko esleipen hartzaileen kudeaketa Administrazioaren eta jendearen gogobetekoa izan den.

Beraz, natura interpretatzeko zentro batzuetan lehengo kudeatzaileek ez jarraitzearen arrazoi bakarra da egindako lehiaketan haiek egindako eskaintza ez izatea puntu gehien lortu zituena, lehiaketara aurkeztu zirenen artean. Hori hala izanda, legearen indarrez, proposamen onenari eman behar zaio esleipena.

2. Zer alde izan dituzte kontutan, eta zer ponderazioarekin, aipatu interpretazio zentroak esleitzeko garaian?

Kasuan kasuko administrazio baldintzen orrietan bildutako esleipen irizpideak honako hauek izan ziren:

a) Lanerako programa, aintzat hartuz zein lan egin behar ziren, denboran nola banatzen ziren, haiek burutzeko zeuden bitartekoak eta lan horiek baldintza teknikoaren orriei nola egokitzen zitzaizkien: 0 puntutik 3 puntura bitartean.

b) Lizitatzzaileak, enpresak edo lan hauetarako sortutako taldearen giza bitartekoak eta bitarteko teknikoak, aintzat hartuz hemen ere haien egoki-

tasuna eta dedikazioa: 0 puntutik 4 puntura bitartean.

c) Eskaini zen aurrekontu orokorra: 0 puntutik 3 puntura bitartean.

3. Interpretazio zentroa kokatzen den ibarrarekiko lotura garrantzitsua izanik, zergatik ez da hori kontutan hartu alde garrantzitsu bezala ponderazioa egiteko (erabakior ez, baina bai garrantzitsu)?

Administrazio Publikoen lehiaketa guztietako baldintza orriak maiatzaren 18ko 13/1995 Legearen menpean daude; beraz, Konstituzioaren printzipioak bermatu behar dira, hots, lanpostuak eskuratzeko pertsona guztien berdintasuna, diskriminazio eza eta askatasuna. Hori dela eta, Konstituzioaren aurkakoa izanzen litzateke lehiaketa bateko balorazio irizpideetan aintzat hartzea pertsona fisikoak edo juridikoak lurralde, herri, eta abar jakin batekoak izatea.

4. Zer irizten diote Zaraitzu ibarreko hainbat hautetsi, egindako esleipenaren ondorioz, kezkatuta izateari? Hain zuzen ere, Zaraitzu ibarreko

hiru gazte eta Erronkariko beste hainbeste geratu baitira kudeaketarik gabe, besteak beste.

Aipatu hautetsiek egindako adierazpen publikoak erabat ulergarriak dira kontuan hartuta zein diren beren erantzukizuna eta ordezkari-tza demokratikoa, bai eta aipatu ibarretako garapen ekonomiko eta soziala eta hango biztanleen eta bereziki gazteen enplegu arazoak direla eta.

Otsagabiako eta Erronkariko interpretazio zentroyen kudeaketa apirilaren 1era arte haiek kudeatu dituzten enpresei esleitu ez izanak ez du esan nahi lurralde horretako gazteek betetzen zituzten lanpostu horiek desagertu direnik, izan ere esleipena hartu duen enpresak bertako gazteak kontratatu dituelako jendeari arreta egiteko lanetarako.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 7an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

## **Funtzionarioen lansariei buruzko otsailaren 10eko 22/1997 Foru Dekretuaren inpugnazioari buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak funtzionarioen lansariei buruzko otsailaren 10eko 22/1997 Foru Dekretuaren inpugnazioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko apirilaren 28ko 29. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak funtzionarioen lansariei buruzko otsailaren 10eko 22/1997 Foru Dekretuaren inpugnazioari buruz egindako galderaren

inguruan, Lehendakari-tza eta Barne Kontseilariak ondoko erantzuna ematen du:

1. Zer argudio eman du Estatuko Gobernuak 22/97 Foru Dekretuaren inpugnazioa zuzitzeko?

1997ko apirilaren 9ko Lankidetzaren Batzordearen bileran, Estatuko Administrazioaren ordezkariak adierazi zuten aipatu Foru Dekretua, beren ustez, 1997rako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 12/1996 Legearen 17. artikulua aurkakoa zela. Lege horretan Administrazio Publiko guztietarako ezarri zen langileen lansariei ez zutela inolako igoerarik izanzen, 1996. urtean jasotzen zituztenen aldean.

2. Zertan oinarritzen da Estatuko Gobernuak Foru Dekretua inpugnatzeko, haren oinarri den Aurrekontu Legea ukitu gabe?

Lankidetzaren Batzordearen aipatu bileran Estatu-ko ordezkariak adierazi zutenaren arabera, Dekretua inpugnatzeko, eta ez dekretua heldu deneko Aurrekontuen Legea, Estatuko Administrazioaren



argudioaren oinarria da, izan ere, ez direla zalan-zalan jartzen Nafarroako Foru Komunitateak funtzio publikoaren arloan dituen eskumenak. Azken finean, ez dago eskumen-auzi bat, baizik eta arazo bat Estatuko arauaren, hots, 1997rako Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legearen, irismenaren eta aplikazioaren gaineko interpretazioa dela eta.

3. Zer argudio eman dira zuritzeko Estatuko Gobernuak "mesede" egiten diola Nafarroako Gobernuari Dekretuaren exekuzioa etetea eskatu ez denean?

Dekretuaren exekuzioa etetearen eskaera izapide bat da, legez helegite bat paratzeari erantsitakoa, eta horrexegatik etetearen eskaera da argudiatu beharko litzatekeena, eta ez alderantziz. Edonola ere, Estatuto Administrazioari dagozkio alde bateko zein besteko argudioak.

4. Gurea jaunak dioen bezala, Estatuak zalan-zalan ez baldin badu jartzen Nafarroak foru-funtzionarioen ordainketak arautzeko ahalmena duela, zergatik eta zer oinarriekin egiten da inpugnazioa?

Galdera hori 1. puntuan erantzun dudalakoan nago.

5. Estatuko ordezkariak bi administrazioen arteko "eskumen-auzia" zegoela esan baldin bazuen inpugnazioa arrazoitzeko, nola justifikatu du Estatuak kontentzioso-administratiboan ebaz-

tea eta ez "eskumen-auziei" dagokien konstituzio-bidean.

Galdera hori 2. puntuan erantzun dudalakoan nago.

6. Egia al da Estatuak esan zuela bere inpugnazioaren justifikazioa Estatuak ekonomiaren antolaketa orokorrerako duen eskumenean zetzala, eta Foru Komunitateak men egin behar diela haren erabakiei, funtzio publikoko eskumena badu ere? Hala bada, Nafarroa ez al da betetzen ari Estatuak orokorrean aurreikusitako aurreikuspen ekonomikoak?

Estatuaren eskumena, alegia, Espainiakako Konstituzioaren 149.1.13. artikuluan biltzen dena, "Jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarri eta koordinazioa"ri buruzkoa da, izan ere horiexek direlako aurreikuspen ekonomikoak bete antzineko funtsezko inguruabarrak.

Beraz, Espainiako Gobernuak ez du esaten ez-betetze bat dagoenik ez eta, gertatu, gertatzen ari denik ere: Estatuarekin adostutako aurrekontuen kontsolidazioaren esparru hori betetzen ari da.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 15ean

Lehendakaritza eta Barne Kontseilaria: Rafael Gurea Induráin

## Nafarroako Liburutegi Nagusiari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Gregorio Martínez Ezcaray Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Liburutegi Nagusiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 12ko 33. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Gregorio Martínez Ezcaray Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Liburutegi Nagusiari buruz

egindako galderaren inguruan, Lehendakaritza eta Barne Kontseilariak ondoko erantzuna ematen du:

1.- Nafarroako Gobernua lanean ari da Nafarroako liburutegien sistemarako eredu berria diseinatzeko, Kultur Zuzendaritza Nagusia-Vianako Printzea Erakundearen zerbitzu teknikoak erabiliz. Eredu horretan Nafarroako liburutegi nagusiak zeregin nagusi bat izanen du, alegia, Nafarroako liburutegi publikoen sareko liburutegi zentrala izatea.

2.- Lehen elkarrizketen emaitza, oraingo legegintzaldiaren hasieran, izan da Nafarroako Gobernuak kanpoko bi adituri beste hainbeste txosten eskatzea Euskal Jai eraikinaren egokitasuna dela

eta, bai ikuspuntu arkitektoniko eta urbanistikotik bai liburuzaintzaren ikuspuntutik, hain zuzen ere bertan liburutegi nagusiaren egoitza berria jartzeko.

3.- Bai. Ondokoa da Nafarroako Gobernuak burutzen ari den aurreikuspena:

1998/99 urteak: proiektua idaztea.

2000 urtea: proiektua burutzeko lanak hasia.

4.- Gobernuak uste du liburutegi nagusia toki zentrikoan eta hiritarren eskura jarri behar dela, hiriko bizitzaren zirkuituetan, eta eremu zabal eta malguak izan behar dituela, alegia, etorkizuneko

zabalpenak eta zerbitzu berriak eta Nafarroako liburutegi nagusia izateaz gain Nafarroako liburutegi publikoen sareko liburutegi zentrala izateak berekin dituen zerbitzuak ere hartzeko moduko eremuak.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 14an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria, Jesús Javier Marcotegui Ros

## Nafarroako aldi baterako lanerako enpresei buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nafarroako aldi baterako lanerako enpresei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko apirilaren 28ko 29. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak Nafarroako aldi baterako lanerako enpresei (A.L.E.) buruz egindako galderaren inguruan, Ramón Bultó Llevat Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariak ondoko erantzuna ematen du:

Nafarroako Foru Komunitatean jarduteko baimena duten A.L.E.en zerrendari dagokionez,

eranskin bat jarri dugu. Eranskin horretan 1997ko apirilaren 30ean Lan eta Gizarte Arazoetarako Ministerioak eta Nafarroako Gobernuak baimendutako A.L.E.ak, ondoan haien jardunaren hasiera-data dutela.

Era berean, aldi baterako lanerako enpresen jardueraren inguruan dauden foru lege, foru dekretu, foru agindu eta Gobernuaren erabakiak erantsi ditugu.

A.L.E.en jardunak Nafarroako Foru Komunitatearen enplegu estatistiketan duen eraginari dagokionez, INEMek (Enplegurako Institutu Nazionala) ez du balorazio estatistikorik egin; dena den, kontuan hartuta ukitutako langileen kopurua eta egindako kontratuak, hots, 1996an 14.166 langile eta 17.582 kontratu, argi dago enpresa horietako jardunak aldeko eragina izaten ari dela enpleguan.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 12an.

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

Nafarroan jarduteko 1997ko apirilaren 30ean baimenduta dauden  
aldi baterako lanerako enpresen zerrenda  
Lan eta Gizarte Arazoetarako Ministerioak baimendutako enpresak

	Jardueraren hasiera data
Adia Intergrupp, Empresa de Trabajo Temporal, S.A.	94-7-22
Adecco, TT, S.A. Empresa de Trabajo Temporal (Antes Ecco, TT, S.A. Empresa de Trabajo Temporal)	94-7-22
Manpower Team Empresa de Trabajo Temporal, S.A.	97-3-6
Laborman Empresa de Trabajo Temporal, S.A.	94-9-23
Flexiplan S.A. Empresa de Trabajo Temporal	94-10-18
Faster Ibérica Empresa de Trabajo Temporal, S.A.	94-10-28
Bicolan Empresa de Trabajo Temporal, S.A.	97-2-10
People Trabajo Temporal, Empresa de Trabajo Temporal, S.A.	96-12-2
Trabatem, Empresa de Trabajo Temporal, S.A.	96-12-10
Intereuropea de Trabajo Temporal, Empresa de Trabajo Temporal, S.L.	95-3-31
Serwork Empresa de Trabajo Temporal, S.L.	95-5-26
Tutor Recursos Humanos Empresa de Trabajo Temporal, S.L..	97-1-16
Temporing Empresa de Trabajo Temporal, S.L.	97-2-3
Lester Empresa de Trabajo Temporal, S.L.	95-9-20
Unidad de Mantenimiento Ocupacional Humano Empresa de Trabajo Temporal, S.A.	95-9-22
Lan Bila Bulegoa Empresa de Trabajo Temporal, S.L.	97-2-26
Ananda Gestión Empresa de Trabajo Temporal, S.L. (Antes Tempo Futuro, ETT, S.L.)	95-12-15
Grupompleo, Empresa de Trabajo Temporal, S.L.	96-1-16
Workers Consulting Empresa de Trabajo Temporal, S.L.	96-3-27
Gestión Temporal de Recursos Humanos, ETT, S.L. (Gester)	94-10-14
Centro de Trabajo Tempo Empresa de Trabajo Temporal, S.L.	94-12-17
Select Recursos Humanos Empresa de Trabajo Temporal, S.A.	97-3-10
Tratena, Empresa De Contratación Temporal, S.L.	95-8-9

Nafarroako Gobernuak baimendutako enpresak

	Jardueraren hasiera data
Servicios de Contratación Temporal, Ett, S.L. (Sercotem)	94-9-29
Fidelio T.T., E.T.T., S.L.	94-12-17
Empresa de Contratación Grupotem, ETT, S.L.	95-7-21
Promoción de Empleo Navarra Ett, S.L.	95-10-30
Tralutemp, ETT, S.L.	96-10-24
Administración Profesional Del Empleo, E.T.T., S.L. (Aprodem)	97-4-16

Aldi baterako enpresen jarduerari dagozkien foru lege, foru dekretu, foru agindu eta Gobernuaren erabakiak direla eta, adierazi behar da haien araupetzea lan arloko gaia dela, beraz Estatuaren eskumen osoa, Espainako Konstituzioaren 149 1. 7. artikulua araberak, ezertan kendu gabe Elkarte Autonomoetako organoen zeregina dela lege horiek betearaztea. Foru Komunitateak ahalmen hori du Nafarroan eta ez beste inon aritzeko baimenduta dauden A.L.E.en gainean (badaude 6 A.L.E. Nafarroan eta ez beste inon funtzionatzen dutenak eta 26 Nafarroarenaz gaindiko eremua

dutenak), baina Estatuako legedia zorrozki bete behar dute, izan ere eskumenik ez dagoelako gai hori arautzeko. Beraz legezko araupetzea Estatuari dagokio; ondokoa da:

- Aldi baterako lanerako enpresak arautzeko ekainaren 1eko 14/1994 Legea (ekainaren 2ko EAO).

- Urtarrilaren 13ko 4/1995 Errege Dekretua, aldi baterako lanerako enpresak auratzen dituen ekainaren 1eko 14/1994 Legea garatzen duena.

## Nafarroako ureztalurrei izendatzen zaizkien errendimenduen jaitziera garrantzitsua ezartzen duen Ministro Agindu berriari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betetz, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nafarroako ureztalurrei izendatzen zaizkien errendimenduen jaitziera garrantzitsua ezartzen duen Ministro Agindu berriari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko apirilaren 28ko 29. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

José Javier Sánchez Turrillasek, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak, Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatuaren babespean, hurrengo galdera egin du, idatziz erantzun diezaioten, Espainiako Ekoizpena Eskualdetze Plana aldatzen duen 1997ko martxoaren 20ko Ministro Aginduak aipatutako inguruar bar batzuei buruz. Hari erantzuna emateko, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariak ondokoa adierazten du:

Nafarroako Parlamentuko Nekazaritza Batzordearen bilkuran, goitik behera azaldu nuen Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak hasitako prozesua, alegia, Espainiakako Ekoizpena Eskualdetzeko Planaren aldaketa onesten zuen

1997ko martxoaren 20ko Ministro Agindua argitara ematearekin bukatu zen hura.

Luzeegi ez joateko, berriz adierazi nahi nizuke bai sektorekako batzarrean, bai Elkarte Autonomoetako zuzendari nagusiekin Ministerioan egindako bilkuretan, planteamendua beti izan dela elkarte autonomoetako sekain lur diren eskualdetako soberako azalerak mentsa dutenetara aldatzea, eta eragiketa horretan sobran diren sekain lurren 247.000 Ha horiek, hain zuzen ere aipatu zehapena murrizteko ureztalur izatera aplikatu zitezkeenak dauden mugak gainditzeagatik, etorkizuneko beste elkarrizketa batzuen helburu izan zirela, Komunitate arloko araupetzeak ezarritako ekoizpen-neutraltasuna erdiesteko prozedura kontsentsu bidez ezartzeko. MAPAk (Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa) Ministro Agindu bat argitaratu berri du agindutako prozedurari jarraitu gabe eta artoaren eta gainerako belar-laborantzen mozkinak bere kasa murriztuz.

Murrizketa hori ez da ez lineala, ez objetiboa izan, eta Nafarroan ureztalurrei aplikatutako mozkinak kaltetu ditu. Horrek guztiak Nafarroako Gobernu bultzatu du 1997ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, aipatu Ministro Aginduaren aurkako helegitea paratzeko erabakia hartzera.

Ikusita zein den eskatzen diren datuen luzera, eskatutako dokumentazioa erantsi da, bidezkoa den bezala.

Ondokoa da alderdi askotatik eskualdetze berriak Nafarroan izanen duen eragin ekonomikoa:

Ureztalurretan zehapenik gabe jaso daitekeen gehienaren eta 1997ko martxoaren 20ko Ministro Aginduaren bidez onetsi ziren mozkinen arteko aldeak 514 milioi pezetako kaltea ekartzen dio Nafarroari.

Kontuan hartuta aurreko kanpaina Espainiari, oro har, % 25,3ko zehapena ezarri zitzaioa sistema orokorreko aitopenetan, eta % 17,9 sistema erraztuko aitopenetan, ureztalurretan aurreko kanpaina jasotakoaren eta Ministro Aginduak xedatutakoaren arteko aldeak 180 milioiko kaltea ekarriko lioke Nafarroari.

Eman dezagun oinarriko azalera eskualdetuta dagoela eta horrek % 6,56ko gainditzea ekartzen duela, Nafarroako ureztalurrengatik zehapen teorikoaren eta Ministro Aginduan xedatutakoaren

arteko aldeak Nafarroarendako kaltea 330 milioi pezetaraino igoko luke.

Aintzat hartu behar da Nafarroako bederatzi udalerrietako mozkinek gora egin dutela, eta horrek dirusarrerak 33 milioi pezeta igotzea ekarriko duela. Zenbateko hori kendu beharko litzateke arestian aipaturiko kalte horietatik.

Aurretik azaldu den bezala, Nafarroako Gobernuak Ministro Aginduari helegitea paratzeko erabakia hartu du; beste aldetik, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak behar diren kudeaketa guztiak egin behar ditu Nafarroako ureztalurren azalaren eskualdetzea lortzeko.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 14an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Martínez Alfaro

(Oharra: Aipatutako dokumentazioa Foru Parlamentariaren esku dago Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan.)

## Iparlat enpresak enplegua erregulatzeko aurkezturiko espedienteari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Iparlat enpresak enplegua erregulatzeko aurkezturiko espedienteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko martxoaren 21eko 20. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Iruñean Iparlatek duen lantegiaren egoeraren hainbat alderdiri buruz Javier Sánchez Turrillas "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari jaunak jaunak idatzizko erantzuna eskatuz Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 184. eta hurrengo artikuluetan xedaturikoaren babesean egindako galderari ihardetsiz, Nekazaritza, Abeltzaintza eta

Elikadura Kontseilariak honako honen berri ematen du:

1986tik, orduan Industrial Lechera Navarra, S.A. deiturikoan, gaur egun arte, Iparlaten, Nafarroako Gobernua babesa ematen aritu da bai bere sozietate publikoen bitartez Sozietateko kapitalean parte hartuz, bai Nekazaritza Departamentuaren bitartez Copeleche Esne Kooperatibari lagunduz. Hau guztia, bi arrazoi direla-eta: Nafarroako esne-azpisektorearen garrantzi ekonomiko eta soziala -Sozietateari, Copeleche-ren bitartez, Nafarroako ekoizpen-bolumen osoaren %50a eta Foru Komunitateko abeltzainen %75a ekartzen baitio- eta, bestalde, Iruñeko lantegia eta bertako lanpostuak mantentzeko dagoen interesa.

Aurten, Nafarroako erakundearen partehartzea Iparlaten Kapitalean honakoa zen:

Copeleche .....	%12,71
Caja Rural de Navarra .....	%5,03
Nafarroako Aurrezki Kutxa .....	%2,48
Nafinco .....	%4,01

1997ko urtarrilean, Iparlateko Kontseiluak, 3.000 milioi pezetatan baloraturiko fondo-propio beharriaren aurrean, bere akziodunei sozietatean zeukaten partehartzearen proportzioko kreditu partehartzaile bat sinatzea proposatu zien.

Bestalde, aurtengo martxoan, Iruñeko lantegien zailtasun ekonomikoak direla-eta, lantegi horretako 104 langileak ukituko dituen aldi baterako enplegu-erregulazioa aurkeztu zuen Iparlat enpresak.

Egoera honen aurrean, eta Iparlateko zuzendaritzarekin hainbat elkarrizketa izan ondoren, kreditu partehartzailearen haundiagotzea ez sina-

tzea erabaki zuen Nafinco-k, gogoan izanik enpresan kapital nafarraren partehartzea kapital osoaren %24,23koa dela, eta Iruñeko lantegia bere jarduera-maila jaisten joan dela, Iparlaten jardueraren %8koa izatera iritsi arte.

Lehen aipaturiko elkarrizketetan, Iparlateko zuzendaritzak aurtengo uztaileko Iruñeko lantegiari buruzko bideragarritasun-azterketa bat presatzeko konpromezua hartu du.

Iruñea, 1997ko maiatzaren 14a

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Martínez Alfaro

## **Gobernuak Foru-Bilduma eskubide juridiko, sozial eta abarrei dagokienean aldatzeko asmoa ote duen jakiteko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak Gobernuak Foru-Bilduma eskubide juridiko, sozial eta abarrei dagokienean aldatzeko asmoa ote duen jakiteko egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 19ko 35. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 21a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

Lehendakaritza eta Barne Kontseilariak, Reyes Cortaire Tirapu "Nafarroako Demokraten Elkargunea" Parlamentari Taldeko Foru Parlamentari Andreak batze zibilen arautzeari buruz egindako galderari ihardetsiz, honako erantzun hau bidaltzen du:

Lehendabizi, komenigarria da galderaren testu osoa errepikatzea, galdera zehatzak eragin dituzten baieztapenen egilea nor den argi gera dadin. Galderak honela dio:

"Partido Popularrak Diputatuen Kongresuan duen Parlamentari Taldeak lege-zirriborroa egin du batze zibilei buruz, horiek erregularizatzeko asmoz.

Jakina denez, Nafarroak eskumen osoa du Zuzenbide Zibilean, Lorafnako 48. artikulua dioe-

narekin bat. Beraz, Estatuak gai honi buruz egin nahi duen edozein aldaketa ez da Nafarroan aplikatuko, Foru Zuzenbide Zibilaren Bilduma aldatzen ez bada, behintzat.

Hori horrela, jakin nahi da:

1.- Haren sozio den Partido Popularrak proposatu bezala, Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik foru-bilduma aldatzea aztertzeari ekiteko, eskubide juridiko, sozial eta abarrei dagokienean, batze zibilen erregulazioa ahalbideratzeko?

2.- Hala bada, noizko aurreikusi du Nafarroako Parlamentuari aurkeztea?"

Galdera honi erantzunez, lehendabizi zera adierazi behar da: Nafarroak ez du eskumen osorik Zuzenbide Zibil alorrean, eskumen eskusiboa Foru Zuzenbide Zibilean, baizik.

Ñabardura hauek egitea garrantzitsua da, eskusibitate kontzeptuak definizio eta eduki zehatzak baitaizka. Bestalde, Nafarroan Foru Berrian jasotako Zuzenbide Zibila bakarrik aplikatuko balitz, asko erabilitako hainbat instituzio zibil ezin-go lirateke erabili, gure Bilduman jasota ez egoteagatik.

Lorafnako 48.1. artikulua idazketa zuzenaren arabera den argitze honek defendaezin bihurtzen du Cortaire andreak jarraian ateratzen duen ondorioa: "Beraz, Estatuak gai honi buruz egin nahi duen edozein aldaketa ez da Nafarroan aplikatuko, Foru Zuzenbide Zibilaren Bilduma aldatzen ez bada, behintzat".

Egindako galdera zehatzei dagokienez, Gobernu honek, batze zibilak direla-eta, gai hau sartuz Foru Zuzenbide Zibilaren Bildumaren aldaketarik mahaigaineratzeko inongo asmorik ez duela adierazi beharra dago, Cortaire andreak dirudienez gai honetan interesa duen arren.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoetan xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko maiatzaren 16a

Lehendakaritza eta Barne Kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

## **Baztan, Bertizarana, Bortziri, Malerreka eta Zugarramurdin hondakin solidoak tratatzeko erari buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Baztan, Bertizarana, Bortziri, Malerreka eta Zugarramurdin hondakin solidoak tratatzeko erari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko apirilaren 28ko 29. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 21a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

Baztan, Bertizarana, Bortziri, Malerreka eta Zugarramurdin hondakin solidoak tratatzeko erari buruz José Javier Sánchez Turrillas, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Parlamentari jaunak idatziz erantzun dakion eginiko galderari ihardetsiz, honako erantzun hau bidaltzen du izenpetzen duen Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak:

1.- Zer azterketa egin dira hirurteko planean agertzen diren inbertsio-kopuruak jakin eta zehatz-mehatz azaldu ahal izateko?

2.- Zer udal dermiotik, eta horren barruan, zer tokitan aurreikusi da aipatu tratamendu-zentroa jartzea? Ukitutako udala eta auzokoak bat al datoz?

3.- Zeintzuk dira aipatu tratamendu-zentroaren zehaztasun nagusiak? Zehatz bedi aipatu zentroan jarri nahi den tratamendu-sistema: hondakindegia, erraustea, termolisia, birziklaia, eta abar.

4.- Nafarroako Gobernuak asmorik ba al du inguru horretan hondakinak guztiz birziklatzeko

sistema ezartzeko, hurrengoak oinarritzat hartuta: etxeko hautazko bilketa, gai organikoak eta ez organikoak banatzea, konpost planta egitea, gai inorganikoak (papera, kartoia, beira, metalak, oihalak, plastikoak eta abar) birziklatu edo berriro erabiltzea, gai pozoitsuak bereizteko planta, birtziklatzeko plantak, gai organikorik gabeko hondakindegia...?

Berriki, baldintza teknikoek buruzko orri bat prestatu da, Baztango Udalak eta Malerreka Mankomunitateak oinarri gisa erabili ahal izan dezaten azterketa bat kontratatzeko, hiri-hondakin solidoen kudeaketaren ikuspegitik eginiko gaur egungo egoeraren definiziotik abiatuko dena eta bai ikuspuntu teknikotik, bai ekonomikotik etorkizuneko alternatibarik onena eta beharrezko diren instalazioen kokapena definituko dituen.

Nafarroako Gobernuak, posible den guztietan, honako hauei bultzada ematea aurreikusten du: hondakinen balorizazioaren sustapena horien forma edozein dela ere, bukaerako deuseztapena minimizatzea eta hondakin-lekualdatzearen kontrola arlo honetako Europako Batasuneko politikaren oinarritzeko kontzeptu, arau eta definizioak jarraituz.

5.- Galdera honetan aipatzen denaz gain, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak bilerarik egin al du ukitutako toki-entitateekin, aipatu inbertsioak egitea erabakitzeko? Ingurugiro Departamentuaren ustetan, zein da tratamendu-sistematik egokiena, ingurugiroaren aldetik? Toki-entitateek zer proposatu dute tratamendu-motari buruz?

Inbertsioak egiteari buruzko erabakia Toki Administrazioaren eskumena da; horregatik, nik ez dut kontakturik eduki.

Ingurugiroaren ikuspegitik, tratamendu-sistemarik egokiena aipaturiko azterketan zehaztuko da. Ezin daiteke esan zein den sistemarik onena ingurugiroari dagokionez, honelako hainbat faktore kontuan eduki gabe: herrietarainoko distantzia, lurzorua ezaugarri geologikoak, plubiometria... Faktore hauek azterketan behar bezala neurtuak izan beharko dira; baita balorizazio-aukera errealak ere. Une honetan Ontzi eta Ontzi Hondakinei buruzko Legeak aurreikusitakoari jarraituz sortzera doazen kudeaketa-sistema integratuen abiarazpenak baldintzatu egiten ditu balorizazio-aukera horiek.

Toki Entitateek ez dute proposamen zehatzik egin tratamendu-motari buruz, beraiekin izandako hainbat harremanetan hondakinak Nafarroako beste eskualde batzutan kokaturiko tratamenduzentrotara eraman ditzaten nahiago dutela agertu badute ere.

6.- Indarrean den hiri-hondakin solidoei buruzko plan zuzentzaileak zer aurreikusi du tratamenduzentro horri buruz? Nola aurreikusten da aipatu zentroa hiri-hondakin solidoei buruzko plan zuzentzailearen errebisioan? Noizko egon daiteke hiri-hondakin solidoei buruzko plan zuzentzailearen errebisioa?

Indarreango Hiri Hondakin Solidoei buruzko Plan Zuzentzaileak honako irtenbide hauek aurreikusten ditu:

- Bortzirriak Mankomunitatea: hondakindegia kontrolatua.
- Malerreka Mankomunitatea: erraustegia.
- Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdi: erraustegia.

Egun funtzionatzen dutenak Bortzirriak Mankomunitateko hondakindegia eta Baztan eta Malerreka erraustegiak dira. Azken hauen funtzionamendua oso akastuna delako, behin-behineko hondakindegia antolatuta dira. Urdazubi eta Zugarramurdi kudeatzaile frantsesak dituen mankomunitate bati ematen dizkiote beren hondakinak.

Hiri Hondakin Solidoei buruzko Plan Zuzentzailearen errebisioa, Ontzi eta Ontzi Hondakinei buruzko Lege berria kontuan hartuko duena, urtebeteko epean burutua egon litekeela aurreikusten da.

7.- Noizko aurreikusi du Nafarroako Gobernuak tratamenduzentroaren proiektu teknikoak bukatzea?

Azterketaren ondorioak jakindakoan zehaztu ahal izango dira proiektuaren amaiera-epea, erabaki hori hartzen bada, eta abiarazteko epea.

8.- Horrelako proiektu batean: Zer administrazio-prozedura erabiliko da onartzeko? Audientzia emango al zaie ukitutako toki-entitateei? Jendarean paratuko al da? Nafarroako Ingurugiro Kontseiluak txostena emango al du? Gaiak ingurugiroarentzako eta osasun publikoarentzako garrantzia duenez, herritarren partehartzea bultzatuko al da, beste bide batzuetatik?

Proiektua onartzeko, indarreango legediak sailkaturiko jarduera eta hirigintzarentzako aurreikusten duen prozedura erabiliko da; informazio publikoa prozedura honetako urrats bat da.

Proiektua Toki Entitateek sustatuko dute; indarreango legediak hiri-hondakin solidoen bilketa eta tratamendu zerbitzua ematera behartzen ditu hauek, eta hauei dagokie, egoki iruditzen baldin bazaie, partehartze publikorako bitartekoak eskaintzea.

9.- Nafarroako Gobernuak egoki edo beharrezkotzat jotzen al du dagokion ingurugiro-deklaratzaioa erakarriko duen ingurugiro-eraginaren azterketa egitea, tratamenduzentroak ingurugiroan izan dezakeen eragina aztertu eta neurri zuzentzaile egokiak paratzeko, gure Komunitateak Gongoza eta Carcarreko zentroekin ireki zuen ildotik ez aldentzeko? Hala bada, noizko izango da idatzita aipatu azterlana?

Zentroaren proiektuak ez du zentzu hertsian Ingurugiro Eraginaren Azterketarik galdatzen, hiri-hondakin solidoen tratamendua ez baita ingurugiro-eraginaren ebaluaketarako 1302/86 Errege Dekretu Legegilearen eta hau garatzen duen Erregelamenduaren aplikazio-eremuan sarturiko jarduera bat. Hala eta guztiz ere, Jarduera Baimeana lortzeko beharrezkoak diren dokumentuen artean, ingurugiro-eraginei buruzko problematika osoa, horiek minimizatzeke hartu beharreko neurri zuzentzaileak eta ustiapen-fasean zehar ezarri beharreko ikuskapen- eta kontrol-neurriak jaso behar dira.

10.- Nafarroako Gobernuko zer departamenturi dagokio hiri-hondakin solidoen tratamenduzentrori buruzko proiektu teknikoak lantzea? Zeintzuk dira Toki Administrazioko Departamentuaren eskumenak eta zeintzuk Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuarenak, tratamenduzentro honi dagokionez?

Proiektua lantzea ez dagokio Nafarroako Gobernuko ezein Departamenturi. Toki Entitateei dagokie, hain zuzen ere, lantze hori, beraiek aukeraturiko elkarte-erarekin, hala nola proiektua betearazi eta ustiatzea.



Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari hiri-hondakin solidoen kudeaketa planifikatu eta koordinatzea, batetik, eta Plan Zuzentzailearen garapenaren ingurugiro-kontrola, bestetik, dagozkio. Baita ere, beharrezkoak diren instalazioak kokatzen direneko toki entitateak sailkaturiko jarduerarako baimena eman aurretik derrigorrezkoa den txosten loteslea egitea dagokio.

Toki Administrazioiko Departamentuari tratamendu zentroaren eraikuntza finantzatzea dago, Toki Azpiegiturari buruzko Hiru Urteroko Planari jarraituz.

11.- Nafarroako Gobernuak noizko aurreikusi du tratamendu-zentroko obrak hasi eta bukatzea eta martxan jarzea?

Erantzun honetako beste zenbait puntutan esan bezala, jarduketa-egutegia ukituriko Entitatek ezarri beharko dute. Nafarroako Gobernuak

jarduketa hau atzerapenik gabe egin behar dela uste du.

12.- Nafarroako Gobernuak zer neurri zehatz eta presako hartu nahi ditu, eta noiz, inguru horretan diren erraustegiak eta hondakindegia ixteko kutsadura-gune onartezin eta kezkarri baitira, egun oso gaizki funtzionatzen dute-eta?

Inguru horretan dauden hondakindegia eta erraustegiak zona horretako hiri-hondakin solidoak tratatzeko beste aukera bat eduki bezain laster itxi beharko dira.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatutakoari jarraituz jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko maiatzaren 15a

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

## Hartz arrea Nafarroatik hurbil dagoen Frantziako Pirinioan berriz sartzeko proiektuari buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak hartz arrea Nafarroatik hurbil dagoen Frantziako Pirinioan berriz sartzeko proiektuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko apirilaren 28ko 29. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 21a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Hartz Arrea ugaltzeko Proiektuari buruz José Javier Sánchez Turrillas, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzun dakion eguniko galderari ihardetsiz, honako erantzun hau bidaltzen du izenpetzen duen Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak:

1.- Nafarroako Gobernuak ba al du Frantzian ekin nahi zaion hartz arrea ugaltzeko proiektuaren berri? Noiztik du haren berri?

1997ko apirilaren 21ean, Ordesa eta Perdido Mendiko Parke Nazionalean, "Pirinioan mehatxaturiko hiru ornodun-espezieren kontserbazioa" programaren jarraipen batzordea bildu zen, LIFE Proiektuaren barnean, eta bertan izan zen Nafarroako Batzorde honetan duen ordezkaria.

Bilera honetan, Pirinioan mehatxaturiko hiru ornodun-espezieren (hauen artean, hartz arrea) kontserbazioari buruzko programan LIFE Kontratuaren alderdi sinatzaile guztiek dituzten ordezkariak hartu zuten parte, eta bakoitzak bere lurraldeko emaitzak eta proiektuaren garapen-maila azaldu zituen.

Bilera honetan jakin zen ofizialki Mendebaldeko Pirinioan hartz arrea kudeatzeko programa frantsesa aldatua izan zela, bi helbururekin: batetik, hartzaren populazioa gehitzeko asmoz, eta, bestetik, aurten, 1997an, Mendebaldeko Pirinioetako Biarno Garaian hartz arreak askatzea erabaki dezan Biarno Garaiko Ondare Erakundeak, alegia, auzapezak, abeltzainak, ehiztariak, administrazioak, zientzilariak eta talde kontserba-

ziozaleak biltzen dituen eta hartzen populazioa ugaltzeko hala nola Biarno Garaiko garapen sozioekonomikoa sustatzeko sorturiko erakunde horrek.

2.- Nafarroako Gobernuak jaso al du hartz arrea berriro sartzeko proiektu horren jakinarazpen ofizialik, Frantziako aipatu erakundeetatik zuzenean, edota beste organismo, erakunde edo entitatetik, edo Europako Batasuneko beste kide baten aldetik? Zeinengandik edo zeintzurengandik? Noiz?

Erakunde frantses batek ere ez du zuzenean Nafarroako Gobernuarengana jo hartz arreak berriro sartzeko proiektu honen berri ofizialki emateko.

3.- 1993an Europako Batasunak, Frantziako Ingurugiro Ministerioak, Natura Zaintzeko Institutuak (ICONA) eta Aragoi, Katalunia eta Nafarroako autonomi-elkarteek izenpetu zuten hitzarmenak aurreikusi al du hartz arreaken aleak sartzeko? Baiezkoan, zer kontrol-baldintzekin?

Pirinioetako Mehatxaturiko Ornodunak Kontserbatzeko Programarako LIFE finantz instrumentuari jarraituz 1993an sinaturiko kontratuak zera adierazten du hartz arreaki dagokionean: bizirautean duten aleen eskasia, beren habitataren suntsiketa eta kalitate-galera, eta espezieari jarritako eragozpenak, honek guztiak epe laburrean populazio honen desagerpena eragingo duelarik.

Testuinguru honetan, hartz-espeziearen behar-kada geratzeko ekintzak mahaigaineratzen dira, bi ardatz nagusiren inguruan kokatzen direnak: batetik, dauden baldintzak hobetzea, eta, bestetik, hartzak berriro sartzeko neurriak.

Hartzak berriro sartzeko programari dagokionez, saiakuntza gisa eta Pirinio Zentraletako hartz-populazioa sendotzeko asmoz (kontrolpeko ugalketa) proposatzen da. Programa honekin batera, hartzarekin kontaktuan bizi den populazioari zuzendutako neurriak eta publiko orokorrari informazioa emateko ekintzak landuko dira.

Gauzak horrela, LIFE Instrumentua dela-eta 1993an sinaturiko kontratuan, Frantziak bakarrik proposatu zuen hartzak berriro sartzeko saiakuntzarako baliabide ekonomikoak bideratzea.

Gainera, dagoeneko esan den bezala, berriro sartzeko aukera bakarrik Pirinio Zentralari zegokionez proposatu zen.

4.- Nafarroako Gobernuak eskatu al dio Frantziako Ingurugiro Ministerioari edo beste erakunde, organismo edo entitateri hartz arrea ugaltzeko

proiektuari amaiera ematea, aipatu espezieko beste alerik ez askatzeko?

LIFE programaren barneko jarduketetan Frantziar eta Pirinio Zentraleko zonan bakarrik sartzeko proposatzen zen, honek Nafarroan inolako eraginik ez zuelarik. Horregatik ez da egin inolako eskaerarik zentzu honetan.

Mendebaldeko Pirinioarentzako (Biarno Garaia) egungo proposamenak, gure Piriniar haranekin zerikusiren bat eduki lezaketenak, hasiera batean aurreikusitakotik kanpo daude, eta oso berriki jakin izan dira proposamen horiek; hori dela-eta, aurreikusitako jarduketa sakonki ezagutzen ez den bitartean, Nafarroako Gobernuak bere iritzia agertzerik ez du. Bestalde, Nafarroako Gobernuak argi utzi zuen Hartz Arrea Ugaltzeko indarrean dagoen Planean, ez zuela espezie honetako aleak berriro sartzeko aurreikusten.

5.- Nafarroako Gobernuak onartu duen hartz arrea ugaltzeko planak, diren hartz arreak zaintzea aipatzen du, baina ez beste ale batzuk sartzeko: gure Komunitateko plana noraino dago koordinatuta Pirinioetako sistema osatzen duten gainerako komunitate edo eskualdeetakoekin?

Alde frantses eta espainiarreko Piriniotar erregio guztien artean mehatxaturiko espezieak kontserbatzeko asmoz estrategia amankomun bat burutzeko akordiora iristea, eta horretarako Europako Batasuneko fondo finantzatuak erabiltzea, gauza bat da; oso bestelakoak dira, ordea, mehatxaturiko espezie bakoitzarentzako plangintza zehatzak.

Azken kasu honetan, hartz arrea ugaltzeko planik, halakotzat hartutakorik, Frantziar ez egotea, edo, Espainiar, Aragoiko Komunitateak Hartz arrea ugaltzeko bere plana oraindik onartua ez edukitzea bezalakoak gertatzen dira.

Eskualde edo Komunitate bakoitzak bere baldintzapen geografikoari edo hartz arreaken populazioaren tamainari dagozkion baldintzak dituela gehitzen baldin badiogu aurrekoari, logikoa da Ugalketa Plan bakoitzak afera honi ikuspuntu desberdinetatik ekingo diola pentsatzea.

Horrela, Nafarroak, Pirinioetako mendikatearen mendebaldeko muturrean kokatua egonik, hartzentzako habitata osatzen duten hainbat inguru kontserbatu eta, horrela, egin beharreko jarduerak arautuz, noizbehinka hartzak agertzea posible egiteko asmoa besterik ezin zuen eduki ugalketa planean. Baldintza hauetan, hartz-aleak berriro sartzeko proposamenik ez egitea logikoa zen.

Aitzitik, hartz-ale kopuru jakin baten ohiko presentzia edukitzen duten beste zenbait eskualdeak Nafarroan aurreikusitakoekin antzekotasunik ez duten jarduketak pentsatu behar izango dituzte.

Horrela, bada, gainerako eskualde Piriniotarrekin dagoen koordinazioa hartz arrea babestea lortzea eta desager dadin ekiditean datzan azken helburuari dagokionean gertatzen dela esan daiteke, nahiz eta horretarako bakoitzak bere jarduketa-plan berezia onartu, bere egoera zehatza kontuan edukiz, bai biogeografia aldetik, bai hartz-espeziearen egoeraren aldetik.

6.- Okil Beltza taldearekin egin dute kontratua, Nafarroako hartz arreakin zerikusia duten zain-tze-lanetarako, eta Pirinioko Ekosistemari buruzko Informazio Fondoarekin (FIEP) Frantzian: Nafarroako Gobernuak parte hartzen al du, bere administrazio-unitateren baten bitartez, bi taldeen koordinazioan, burutu beharreko ekintzetan bat etortzeko? Nafarroako Gobernuak ba al daki aipatu taldeak koordinatzen diren?

Hartz arreakin ikuskapen- eta jarraipen- lan guztien Koordinaziorako Batzorde bat dago. Batzorde honetan parte hartzen dutenak hauek dira: Nafarroa, Aragoi eta Frantziako Office National de la Chasse. Bilera hauetara FIEPa gonbidatu gisa etortzen da, gobernuz kanpoko erakunde bat baita, bere helburuen artean hartz arreak Pirinioan biziraun dezan borrokatzea duelarik.

Okil Beltzaren datuak Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari

jakinarazten zaizkio, eta azken honek hartzen du parte koordinazio batzordean. Beraz, batzorde honetan aztertzen dira elkarrekin Okil Beltza eta FIEParen jarduketak.

7.- Hartz arrea ugaltzeko plana ezarri zuen uztailaren 1eko 268/1996 Foru Dekretuko eranskineko V. tituluan aipatzen da hartz arrea ugaltzeko planaren baitako urteko jarduketaren programaren jarraipen batzordea. Zerk eragozten dio Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari aipatu batzordea eratzea?

Izabako Udalak hartz galzorian dagoen espezieetat hartuz sailkatzearen kontrako errekurtsoa jarri du Auzitegietan.

Gainera, Erronkari Ibarreko Batzar Nagusiak Nafarroan hartz arrea ugaltzeko planaren kontrako errekurtsoa jarri du, bere interesak kaltetzen dituela irizten diolako eta aldearen garapen sozio-ekonomikorako plan bat gehitu ez zaiolako.

Ez dirudi Jarraipen Batzordea baldintza haue- tan abiarazteak arrakasta izateko aukera asko duenik.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko maiatzaren 15a

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

## **Tuterako El Molinarko urtegiaren zentral hidroelektriko bat ezartzeko proiektuari buruzko galdera**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Tuterako El Molinarko urtegiaren zentral hidroelektriko bat ezartzeko proiektuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko apirilaren 28ko 29. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 21a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

Tuterako El Molinarko urtegiaren zentral hidroelektriko bat ezartzeko proiektuari buruz Martín Landa Marco, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzun dakion eginiko galderei ihardetsiz, honako erantzun hau bidaltzen du izenpetzen duen Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak:

1.- Gobernuak ba al du LN-11 lekune naturalean zentral hidroelektrikoa jartzeko proiektuaren berririk? Zer irizten dio?

Tuteratik gertu dauden La Mejana-ko Irlak deiturikoetan minizentral hidroelektriko bat eraikitze-ko asmoaren berri aurretiazko hainbat bilera teknikoren bidez izan du Nafarroako Gobernuak. Proiektu honek Sotos de Traslapuente (LN-11) Lekune Naturaleko 260.000 m<sup>2</sup>-etatik 30.000m<sup>2</sup> okupatzea aurreikusten du, hau da, aipaturiko Lekunearen hedadura osoaren %11,58a.

Proiektuaren sustatzaileen iritziz, lekune horretan instalazio hidroelektriko bat ipintzeak ez du garrantzi handiko aldaketarik sortuko inguruko paisaia eta ekologia baloreetan, eta energia-baliabide berriztagarri bat aprobetxatzea ahalbidetuko du, iturri kutsatzaileek eragindako CO<sub>2</sub> emisioak gutxitu eta gure energia-menpekotasuna arintzeko helburua duten Energia Planeko ildo nagusiekin bat. Ebro ibaian ibarbasoak berreskuratzeko plan berezi bat prestatuz gara daiteke proiektu hori, eta ekimen honek hamar kilometro baino gehiagoko luzera duen ibaiertzean balio ekologiko handiko eta etenik gabeko babesgune bat ezartzea leharke.

Plan Berezi horretan aurreikusitako jarduketak honako hauek izango lirateke, zehazki:

– E.H.N.k Sotos de Traslapuente lekune naturalean kokaturiko Soto de las Norias ibarbasoa biziberritzea, egun 98.000 m<sup>2</sup>ko hedadura duen produkzio-makaldia berezko ibaiertz-baso batekin ordeztuz. Honek, argi eta garbi, lekune naturala hobetu egingo luke kopuruari dagokionez.

– Soto de los Tetones ibarbasoari bere jatorrizko erabilera naturala ematea (udal jabetzako 1.000.000 m<sup>2</sup>, gaur egun nekazaritza-landaketetarako erabiliak). Zehazki, lekune natural izendatua izan dadila proposatzen da; horrela, bere hedadura handiak, suspertua izan ondorengo bere balio ekologikoak (ibaiertz-basoa, milazkadiak, lezkadiak, ihitokiak) eta Ebro ibaiko hobekien babesturiko tartean kokatua egoteak berebiziko garrantziko ekosistema alubial bat eratzea eragingo dute.

– Mejanako irltako Ibarbasoan landaretza eta habitat potentzialak berrezartzea.

– Proposatzen diren naturguneen arteko lotura diren eta urak estal ditzakeen ibaiertzeko aldeetako erabilerak arautzea.

– Valdelafuente eta Ojoko eremu hezeak eta Murillo de las Limaseko erreka, Bardeak eta Ebro ibaiaren arteko pasabide ekologiko garrantzitsua direnak, zorrozki kontserbatzea.

– “Pasada del Río” mendiarte eta egun hondatuta dauden guneak birgaitzea, Kristoaren Pasealeku eta Baseliza eta El Molinareko errete-na kasu.

Oraindaino Gobernuak bere esku daukan informazioaren arabera, jarduketa hauek ezberrik gabeko balio ekologikoa duten inguruak birgaitzea posible egin dezakete, horrela bertako bioaniztasunaren aldeko eragina izanik eta espezie autoktonoen kontserbazioaren bermea indartuz. Eta hau guztia, zentralak sorturiko kalteak oso mugatuak izanik, egungo urtegiaren kota ez baita igotzen, ez dago desbideratze-ubiderik, lur-mugimenduak urriak dira, eta obra zibila egin bitartean neurri zuzentzaileak hartuko bailirateke.

2.- Zer bilera egin du Gobernuak, Industri, Merkataritza, Lan eta Turismo Departamentuaren bitartez, edo Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitzakoaren bitartez, Tuterako Udalarekin, eta aipatu proiektuaren sustatzaile den EHN enpresarekin?

Egin diren bilerek izaera teknikoa eduki dute, eta beren helburua zera izan da: instalazio berriaren asmoa, ezaugarriak eta gauzatuko litzatekeen proiektuari buruzko xehetasunak ezagutzeko.

3.- Zer hitzarmen, edo hitzarmenak egiteko borondate dago aipatu proiektuaren gainean, hurrengoei buruz:

A) Gaur egun lekune naturalizat jotako lurak desklasifikatzeaz.

B) Ebro ibaian 22 kilometroko ibai parkea sortzeko laguntza ekonomikoari buruz (Nafarroako aurrekontuetakoak eta laguntzak Europako Bata-sunetik lortzeko kudeaketarako lankidetzaz).

C) Beste “babesgune” batzuk deklaratzeko behar diren dekretuak aldarrikatzeari buruz. Orobat Nafarroako babesguneen sare barruan sartzeaz.

Tuterako Udalak alde honetarako Plan Bereziaren proiektua bidali ondoren, bertan minizentral hidroelektrikoa eraikitzea ere aurreikusten delarik, Nafarroako Gobernuak proposamena aztertu eta espediente informazio publikoari buruzko izapidetik, hala nola Nafarroako Ingurugiro arloko Kontseiluaren derrigorrezko txostenaren izapidetik, pasarazi beharko du. Beraz, ez dago, eta ezin da egon, aipaturiko puntuei buruzko inolako behin betiko erabakirik.

4.- Nafarroako Gobernuak norainoko laguntza emango dio EHN enpresak aurkeztu duen proiektuaren alde bakoitzari? Noraino dago sartuta horietan? Gauza jakina baita Nafarroako Adminis-

trazioak parte hartze handia duela aipatu enpresa horretan, kapital publikoaren bidez. Nafarroako Gobernuak noraino dator bat Ebro ibaiko tarte horretan ibai parkea sortzeko ideiarekin?

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari dagokionean, aurreko erantzunera jotzen dut.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoetan xedatutakoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko maiatzaren 14a

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

## **Askaingo Udalak Larrun mendiarentzat proposatu duen garapen ekonomikoaren proiektua, eta hark gure Komunitatean izan dezakeen eraginari buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Askaingo Udalak Larrun mendiarentzat proposatu duen garapen ekonomikoaren proiektua, eta hark gure Komunitatean izan dezakeen eraginari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko apirilaren 28ko 29. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 21a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

Askaingo Udalak Larrun mendiarentzat proposatu duen garapen ekonomikoaren proiektua eta hark gure Komunitatean izan dezakeen eraginari buruz José Javier Sánchez Turrillas, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzun dakion eginiko galderari ihardetsiz, honako erantzun hau bidaltzen du izenpetzen duen Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariari:

1.- Nafarroako Gobernuak zer daki Larrun mendiko iparraldean sustatu nahi den aipatu proiektuaz? Nola eragiten dio aipatu proiektuak gure Komunitateko lurraldeari? Zer iritzi du Nafarroako Gobernuak aipatzen ari garen Larrun mendiko garapen ekonomikoari buruzko proiektuaren gainean?

Nafarroako Gobernuak ez du aipaturiko Proiektuaren berririk. Ondorioz, ezin die gorago egindako galderari erantzun.

2.- Nafarroako Gobernuak ba al du borondaterik aipatu mendian Naturguneei buruzko Foru Legeak aurreikusitako lege-figuraren bat ezartzeko, mantentzen dituen balio bereziak zaintzeko asmoz? Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du Larrun mendia Aisialdirako Naturgune deklaratzeko, Nafarroako Gobernuak Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak esan bezala? Zer epetan, eta zer prozedura erabili beharko litzateke aipatu babesaren deklarazioa egiteko?

Berako udalerrian aurkitzen den mendi-zatiaren babeserako babes-figura egokia ezarri ahal izateko, ECOLAN enpresari hasierako datu-bilketan lan bat eta ea Aisialdiko Eremu Natural bat ezar daitekeen aztertzeko eskatu zaio. Hori egin ahal izango balitz, jarraitu beharreko prozedura Nafarroako Naturguneei buruzko ekainaren 17ko 9/1996 Foru Legeko hirugarren artikuluan ezarritakoa izango litzateke.

3.- Habitata eta basa fauna eta flora babesteari buruzko 92/43 Jarraibidea aplikatu al dakioke Larrun mendiari?

Larrun mendiaren inguruak 92/43 Jarraibideko I. eranskinean aipaturiko habitata dauzka. Zehazki, Ingurugiro Ministerioak eginiko Inbentarioan, honako elementu grafiko hauek agertzen dira (ikus eranskin kartografikoa), gehitzen den informazioarekin batera:

#### 67. Elementua

Mota: Poligonoa.

Habitat Kodea: 303043; Estaldura : %87,5; Naturtasun Indizea: 3; Izendapena: Daboecio-Ulicetum cantabrici (gallii).

Habitat Kodea: 523011; Estaldura: %12,4; Naturtasun Indizea: 3; Izendapena: Jasiono laevis-Danthonietum decumbentis.

#### 66. Elementua

Mota: Poligonoa.

Habitat Kodea: 303043; Estaldura: %66,5; Naturtasun Indizea: 2; Izendapena: Daboecio-Ulicetum cantabricsi (gallii).

#### 65. Elementua

Mota: Poligonoa.

Habitat Kodea: 303043; Estaldura: %87,5; Naturtasun Indizea: 3; Izendapena: Daboecio-Ulicetum cantabricsi (gallii).

4.-Nafarroako Gobernuak ba al du Larrun mendia "Natura 2000" izeneko babes bereziko guneen Europako sare ekologikoan sartzeko asmorik?

"Natura 2000" izeneko Kontserbazio Bereziko Eremuen Europako Sare Ekologikoari atxikitako Kontserbazio Bereziko Eremuak sortzeko proposatuak izan daitezkeen Europako Batasunaren intereseko Tokiak hautatzeko prozeduraren barruan, Larrun Mendiaren inguruneak hasiera batean Europako Batasunaren lehentasunezko

intereseko habitat kontsideraturiko lurraldeak dauzka inbentarioan. Ingurune potentzial hauen analisi eta hautaketa 1997an zehar egingo dira Atlantiar zona biogeografiko osoari dagokionean. Alde honetan, Nafarroaz gain, Euskal Autonomi Elkarte, Kantabria, Asturias eta Galizia Autonomi Erkidegoak daude sartuta. Ingurugiro Ministerioak hautaketarako ezarriko dituen irizpideak jarraituz Nafarroako habitatek duten ordezkaritza-mailaren arabera lagunduko du Nafarroak Atlantiar eremuko sarea sortzen.

5.- Edonola ere: Zer neurri hartu nahi ditu Nafarroako Gobernuak mendi multzo hori inguru horretan garatu nahi diren eraikuntza, turismo edo bestelako asmoetatik begiratzeko?

Nafarroako Gobernuak ez du inolako eskumenik alde frantsesean, eta ez daki lurra nola dagoen kalifikatua bertan. Informazioa eskatzeaz gain, gai hau Pirinioetako Lan Erkidegoan tratatua izango da.

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoetan xedatutakoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko maiatzaren 16a

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

## Pamplona TV eta Canal-4ri buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Jaime Iribarren Iriarte Foru Parlamentari jaunak Pamplona TV eta Canal-4ri buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko apirilaren 21eko 28. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 22a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Pamplona TV eta Canal-4ri buruz Jaime Iribarren Iriarte, "Ezker Abertzalea" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari jaunak eginiko galderari ihardetsiz, honako erantzun hau bidaltzen du izenpetzen duen Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak:

1.- Bai Pamplona TVek baita orain dela gutxi Nafarroan sorturiko telebista berria den Canal 4k ere, jaso al dute dirulaguntzarik? Horrela izanez gero, zenbateko izan dira laguntza horiek?

Departamentu honek ez du Canal 4-Pamplona TV-ek inolako dirulaguntzarik jaso izanari buruzko berririk.

2.- Publizitate-kontraturik egotekotan, nori sinatu du akordio hori?

Gaur egun, Nafarroako Gobernuak Canal-4rekin sinaturiko inolako publizitate-kontraturik ez du.

3.- Ba al du zorrik Canal-4k Nafarroako Gobernuarekin edota ogasunarekin? Horrela izan ezker, ogasunak enbargatu al dizkio kontuak?

Gaur egun, 1997ko apirilaren 15ean, "Pamplona TV, S.L." merkatal sozietateak bere ogasun-

betebeharrak beteta dauzka; beraz, data honetan, ez dio inolako kopururik zor Nafarroako Ogasun Publikoari.

4.- Zenbat bide ezberdinetatik ematen ahal zaio dirurik Canal-4ri Administrazio Publikotatik?

Jaime Iribarren Iriarte Parlamentari jaunak "eman" espresioaren zentzua zehaztu ez duenez gero, eta kontratuz kanpoko finantzaketa-erei buruz ari dela ulertuz, dauden finantzaketa-bide bakarrak dirulaguntzak eta hitzarmenak dira.

5.- Legearekin bat al dator emititzeko baimenik ez duen komunikabide bati dirua edozein modutan ematea?

Kasu hau ez du legeak aurreikusten, dirulaguntzak eta hitzarmenak erregulatzen dituen araudia aplikatzeko onuradunek antolaketa, funtzionamendu eta abarri buruzko baldintza guztiak betetzea beharrezkoa baita.

6.- Madrilgo Gobernuak lekuko telebisten eta autonomikoen inguruko legeak aldatzeko asmotan dabil. Zer informazio-mota du Nafarroako Gobernuak honen inguruan?

Kontseilari honek badaki Espainiako Gobernuak toki telebistak aldatzeko lege proiektu bati eta lurreko uhinen bitartez autonomi telebistaren zerbitzua emateko beste lege proiektu bati bultzada emateko asmoa duela, eta lantzen ari diren

aurreproiektuen kopiak ere badauzka Kontseilari honek.

Hemendik aurrera kanal autonomikoa enpresa pribatu batek kudeatuko al du?

Lurreko uhinen bitartez autonomi telebistaren zerbitzua emateko Legearen aurreproiektuak aurreikusten duenez, zerbitzuaren kudeaketa hauek egin ahal izango dute: Autonomi Erkidegoko Administrazioak, sozietate publikoen bitartez (bertako kapitalean Erkidego Autonomoak parte hartzen baldin badu) zein kapital mistoko sozietateen bitartez, eta partikularrek, egoki den administrazio-baimenaren bitartez.

7.- Nafarroako Gobernuak ziurtatu egin al die Canal 4-koei, Nafarroako kanal autonomikoa beraiek kudeatuko dutela? Ba al du konpromiso-oren bat horren inguruan?

Nafarroako Gobernuak ez du hori ziurtatu, ezta konpromisorik hartu ere Canal 4-rekin kanal autonomikoaren kudeaketari buruz.

Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko maiatzaren 16a.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

## **Txerri-izurria heda ez dadin Nafarroako Gobernuak hartutako kontrol neurriei buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak txerri-izurria heda ez dadin Nafarroako Gobernuak hartutako kontrol neurriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko maiatzaren 12ko 33. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 22a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

Txerri-izurria heda ez dadin Nafarroako Gobernuak hartutako kontrol-neurriei buruz José Javier

Sánchez Turrillas, "Socialistas de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzun dakion eginiko galderari ihardetsiz, honako erantzun hau bidaltzen du Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariak:

Eginiko ordena berean erantzungo ditut galderak:

1.- Benetako arriskua egon daiteke, daukagunazienda-merkataritza garrantzitsua kontuan edukirik.

2.-

a) Egun Nafarroan 209.186 gizentzenko toki daude.

b) Gutxi-gora-behera 10.000 buru inportatu dira, nagusiki Errioxa, Aragoi (Zaragoza) eta Gaztela eta León (Segovia)-tik.

c) Europako Batasunetik ez da txerri-azienda-rik inportatu.

3.-

a) Albaitari ofizialek egindako txerri-loditegien ikuskapenak areagotu egin dira.

b) Aujeszky-ren eritasuna eta txerri-aziendaren beste eritasun infekziosoen jarraipenerako batzordea" bilerak egiten ari da.

c) Abere Osasuneko Bulegoa etengabeko harremanean dago Instituto Técnico y de Gestión Ganadero delakoarekin.

d) Osasun Departamentuko Elikadura arloko Osasunaren Atalarekin etengabeko kontaktua, Lleidan kalteturiko eskualdeei buruzko gorabeheren berri emateko Nafarroako hiltegi-tako zerbitzuen arduradun diren albaitariei.

e) Lehendakaritza eta Barne Departamentuari azienda sartzeko dagoen arriskua jakinaraztea,

Foruzaingo eta Goardia Zibilaren trafiko-patruilei ohartaraz diezaieten.

f) Ekoizpen eta Azienda Merkatuen Atala Telefonia mugikorrez hornitzea, ordutegi ofizialez kanpo zerbitzuen arteko kontaktuak errazteko.

4.- Aipaturiko neurriak kontrolatu eta praktikan jartzeaz arduratzen den administrazio-unitatea Ekoizpen eta Azienda Merkatuen Atala da, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuko Nekazaritza eta Abeltzaintza Zerbitzura atxikirikoa.

5.- Segurtasun-indarren kontrol eta partehartzea eta koordinaziorako administrazio-unitatea 3. eta 4. puntuetan azaldu ditugu.

6.- Bai, Lankidetzarako eta Abere Eritasunak Erauzteko Programa Nazionalak Jarraitzeko Batzorde Nazionalak egindako bileren bitartez. Batzorde honetako kide da Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuko Zuzendari Nagusia.

Iruñea, 1997ko maiatzaren 19a

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Martínez Alfaro

## **Abuztuaren 2ko Uraren gaineko 29/1985 Legea erreformatzeko Legearen aurreproiektuari eta honek Itoitz-Nafarroako Ubideko obrekin duen zerikusiar buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Abuztuaren 2ko Uraren gaineko 29/1985 Legea erreformatzeko Legearen aurreproiektuari eta honek Itoitz-Nafarroako Ubideko obrekin duen zerikusiar buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko apirilaren 21eko 28. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 22a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

Izenpetzen duen Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariak, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeko Juan Cruz Alli

Aranguren Foru Parlamentari jaunak abuztuaren 2ko Uraren gaineko 29/1985 Legea erreformatzeko Lege Aurreproiektuari eta honek Itoitz-Nafarroako Ubideko obrekin duen zerikusiar buruz egindako galderaren ondoko erantzuna igortzen dizu:

1. Nafarroako Gobernuak izan al du Urari buruzko abuztuaren 2ko 29/1985 Legea aldatzeko lege aurreproiektuaren berri, Herrilan eta Ingurugiro Ministerioak helarazi edota kontsultak egin dizkiolako?

Nafarroako Gobernuak ez du Urari buruzko abuztuaren 2ko 29/1985 Legea aldatzeko delako lege aurreproiektu horren edukiaren berri izan.

2. Nafarroako Gobernuak baloratu al du taxutzen ari diren araubide berriak Itoitz-Nafarroako Ubideko obretarako duen eragina, orobat haren garrantzi ekonomikoa?



Ez, izan ere ez baitu delako lege aurreproiektuaren berri izan.

3. Itoiz-Nafarroako Ubidetik datozen uren erabileren bideragarritasun azterketetan, kontutan hartzen ari al dira 106. artikuluan agertzen diren erregulazio obren eta obra berezietarako ordainarazpen berrien ondoriozko kostu-gehikuntzak?

4. Zer kudeaketa eta azterlan egiten ari dira urreztalurrak hobetu eta ezartzeko obren gizarte-funtzionalitatea egiaztatzeko, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak aldeko txostena eman dezan, alegia, aipatu obrak beharrezkoak direla Ministerio horren helburu nazionaleri aurre egiteko, ezinbesteko baita Ingurugiro Ministerioak obren interes orokorra aldarrikatzeko, 120. artikuluen arabera?

5. Nafarroako Gobernuak aipatu obra hidraulikoen sustatzailatzat joko al da, obren eraikuntza eta ustiaketaen finantzaketa proposatzearen ondorioetarako, eta baita obrek eragindako konpromezu ekonomikoetarako, edo bestela, Estatu-ko eta Foru Komunitateko administrazioei egoki dakiekeen erantzukizuna definitzeko esparru berri taxutu beharra ari dira aztertze, 120. artikuluko 3. atalak aurreikusitako ondorioetarako?

6. Zer eragin izan dezake obren jarraipenerako 120. artikuluen 3. atalak obren sustatzaileen eta onuradunen konpromezua eskatzea euren etekin

partikularrari egotz dakiokeen kopurua ordaintzeko, interes orokorreko aldarrikapena egin eta Estatuko Aurrekontu Orokorren kontura eraiki baino lehen?

Ezin zaie 3, 4, 5, eta 6. galderari erantzun, izan ere Nafarroako Gobernuak ez duelako delako lege aurreproiektu horren berri, eta, beraz, ez dituelako haren artikulurik edo irismenenik ezagutzen.

7. Nafarroako Gobernuak uste al du Nafarroako ubidea interes orokorrekotzat jotzeko proposamena Gobernu-bilkuraren gai zerrendatik kentzeak zuzeneko zerikusia duela aipatu lege-aurreproiektuak obren finantzaketa eta irau-narazpenari dagokienez erakarriko omen dituen aldaketa sakonekin?

Azken egunetan izan diren egitateen segida aztertuta, eta batez ere Estatuko Gobernuak Nafarroako Ubidea Estatuaren Interes Orokorreko Lan bezala aitortzen duen Lege Proiektua onetsi duenez gero, pentsatu behar da Interes Orokorreko Aitorpen hori Ministroen Kontseiluaren bilkura-tik kentzea gaindituta dagoela.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria: José Ignacio Palacios Zuasti

## **1996-1997 ikasturtean derrigorrezko eta derrigorrezkoaren ondorengo irakaskuntzetan guztira eskolaraturiko ikasleen kopuruari buruzko galdera**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak 1996-1997 ikasturtean derrigorrezko eta derrigorrezkoaren ondorengo irakaskuntzetan guztira eskolaraturiko ikasleen kopuruari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko apirilaren 28ko 29. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 14a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **ERANTZUNA**

Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak 1996-1997 ikasturtean derrigorrezko eta derrigorrezkoaren ondorengo irakaskuntzetan guztira eskolaraturiko ikasleen kopuruari buruz egindako galdera dela-eta, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak honako erantzun hau igortzen dizu:

1. 74.398 dira Nafarroan, 1996-1997 ikasturtean, derrigorrezko eta derrigorrezkoaren ondorengo irakaskuntzetan eskolaraturiko ikasleak.

2. Ikus eranskinak.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

(1997ko maiatzaren 27an Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak galderan eskatutako eta falta ziren datuak eskatu zituen. Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak 1997ko uztailaren 1ean bidali zuen erantzuna.)

### ERANTZUNA

Honen bidez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak, 1996-1997 ikasturtean, Nafarroan, zenbat ikasle eskolatu diren jakiteko eskatu duen informazioa bidaltzen dizut.

Argitu beharra daukat parlamentarioak informazioa eskatzeko arrazoi bezala eman duela lehenagoko galdera bati, apirilaren 28ko NPAOn argitaratua, ez niola erabateko erantzuna eman. Baieztapen hori ez da egiazkoa, erraz egiaztatu daitekeenez galdera eta hari dagokion erantzuna alderatuz.

Beste kontu bat da eskatutako informazioa zabaldu nahi izatea, eta horretarako Departamentu honek ez du inongo eragozpenik.

Iruñean, 1997ko ekainaren 26an.

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

(Oharra: Aipatu eranskinak Foru Parlamentarien eskura daude Biltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan)

## Nafarroako Gobernuak argitalpeni ematen dien dirulaguntzei buruzko galdera

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Nafarroako Gobernuak argitalpeni ematen dien dirulaguntzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko apirilaren 21eko 28. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 24a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### ERANTZUNA

Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak argitalpeni ematen zaien dirulaguntzei buruz egindako galdera dela-eta, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak honako hau adierazten dizu:

1. Nafarroako Gobernuak 1996an eman dituen dirulaguntzak ekainaren 7ko 225/1996 eta urriaren 11ko 410/1996 Foru Aginduetan azaltzen dira.

2. 1997rako 62 eskabide aurkeztu dira; horietatik uste izatekoa da 20 dirulaguntza ematen direla, modu honetara banatuta:

– Gaztelaniaz egindako liburu eta aldizkako argitalpenak: 25.

– Elebietan (euskara eta gaztelania) egindako liburuak: 1.

3. Ondokoa da Nafarroako Gobernuaren laguntza hori izan duten liburuen zenbateko osoa:

– Gaztelaniaz egindako liburu eta argitalpenak: 40.

– Euskaraz egindako liburu eta argitalpenak: 1.

– Elebietan (euskara eta gaztelania) egindako liburu eta argitalpenak: 2.

4. Liburu horien izenburuak aipatu foru aginduetan azaltzen dira.

5. Argitalpenetarako laguntzetarako deia egiten duen aipatu urtarrilaren 18ko 14/1996 Foru Angiduaren 4.3. oinarrian azaltzen dira aukeraketaren arrazoiak.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 181. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko maiatzaren 20an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria, Jesús Javier Marcotegui Ros



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA  
ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonoa* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko sartu-ateratzeko kontura igorri edo bertan sartu

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b> Urte bat ..... 5.800 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 130 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 165 » .	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta, 12, 3 31002 IRUÑEA
---	--